


Adostasunik ez San Telmo Museoaren inguruan

J oan den astelehenean, Udalean, ordezkariak duten talde politikoek San Telmo Museoaren aurreproiektua bozkatu behar zuten Kultura Patronatuko Batzordeak eginiko bileran. Bertan, oposizio taldeek gogor kritikatu zuten aurreproiektua, ondo definituta ez dagoelako. Adostasun falta ikusita, Donostiako alkate Odon Elorzak bozketa atzeratzea eta datozen asteetan dokumentua sakonago

aztertzeko hainbat bilera egitea erabaki zuen. Aurreproiektua duela ia bi hilabete helarazi zitzaizen oposizio taldeei, dokumentua aztertu eta helegiteak aurkezteko aukera izan zezaten. Baina oposizioak informazio gehiago nahi du.

Asteleheneko bileran oposizio taldeen jarrera argi geratu zen. Batasunaren hitzetan, "gauza asko zehaztu behar dira oraindik. Beraz, gure ustez garrantzitsuena proiektu museologikoaren oinarrien dokumentua ahalik eta zabalena izatea da". PP alderdiak, bestalde, tamaina horretako proiektuek adostasuna behar dutela azpimarratu zuen: "Horregatik ezer bozkatu aurretik beharrezkoa da proiektuaren egileekin hainbat bilera tekniko egitea". Bien bitartean, EA-EAJ koalizioa kritikoa izan zen dokumentuarekin, eta proposamen alternatiboa egingo duela jakinarazi zuen. Koalizioaren hitzetan, "San Telmo Museoaren etorkizunak Tabakaleako Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroaren erabileraren definizioarekin lotura zuzena izan behar du". Ildo horretatik, EA-EAJk Hiriko Ondare Historiko-Artistikoaren plangintza egitea beharrezkotzat jo du, "baina betiere San Telmoko eztabaidatze prozesutik kanpo". Horrez gain, koalizioaren arabera, museoaren egitura eta azpiegituraren gabeziak amaitzeko ekintza plangintza egitea eta bertako fondoak baloratzea ezinbestekoa da.



Tabernen araudiaren gorabeherak

Udal Gobernuak tabernetako lizentzien auziarekin amaitzeko araudi bat egin nahi du. Araudiaren helburu nagusia, ostalaritzak Parte Zaharretan eta beste hainbat lekutan eragiten duen zarata eta zikinkeriarekin amaitzea da. 1989an tabernen arteko distantziei buruzko araudia indarrean jarri zenetik, Udalak irizpide ezberdinak erabili ditu tabernei lizentziak emateko. Hori dela eta, hainbat eta hainbat tabernekin pub-enean ordutegia izatea baimendu du, tabernok horretarako lizentziarik eduki gabe. Araudiak aurrera eginez gero, tabernei eskatutako baldintzak (soinugabetzea, ordutegia eta abar) zorrotzkoak izateko.

La Herrera berritzeko akordio eske

Trintxerpe XXI plataformak Pasaiako Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluari La Herrera –Herrera auzoa eta Trintxerpe arteko gunea– zonaldea berritzeko erakundeekin lehen bait lehen akordio bat egitea eskatu dio. Kaiko Agintaritzak 40.250 metro karratuko lursaila ematea nahi du Plataformak, Urban Planak aurreikusitako hainbat proiektu gauzatu ahal izateko. Portuko Agintaritzak, ordea, ez du aipatu lursaila eman nahi, leku falta argudiatuz. Guztira, sei milioi euro bideratuko ditu Urban Planak La Herrera zonaldea berritzeko. Baina, Urban Planak proiektuak amaitzeko 2008a arteko epea ezarri du. Hori dela eta, plataformako kideen aburuz, "ezinbestekoa da Portuko Agintaritzaren eta erakundeen arteko adostasuna lehenbait lehen lortzea".

